



Txapela eskualdera ekartzeko aukera Aitor Mendiluzerekin

FINALA ▶ Bihar jokatuko dute Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finala ikuslez betetako Bilbao Exhibition Center-en

LEHIATUA ▶ «Oraingoz» lasai dagoela aitortu dio HITZari Mendiluzek berak; «inoizko finalik berdinen izango da» 7

L. TERRADILLOS



ESAITen ekimenarekin bat egin dute kirolariek eta kirol elkarteek

TOLOSALDEA ▶ Euskal Selekzioaren aldeko 50 kirolariren eta 35 kirol elkarten aldarrikapena eta sinadura jaso ditu ▶ 2

LEABURU ▶

Osasun gunea, prest. 6

TOLOSA ▶

Txotxongiloen Zentro Iraunkorrerako 500.000 euro jarriko ditu Espainiako Kultura Ministerioak

Prentsaurrea eskaini dute PSE-EEko Renedok eta Buenek; errendimendu handiko kirol zentroak ere jasoko du dirua ▶ 3

ALEGIA ▶

Gabonetarako egitarau zabala. 5

30 DANITZA EMANALDIA

OINKARI dantza taldea (Villabona)
Dantza zuzendaria: Edu Munamendioren
Musika zuzendaria: Xanet Arceena

&

LEINUA dantza taldea (Hiriburu)
Dantza zuzendaria: Roger Goyhenetche
Musika zuzendaria: Elisabet Dubour

Abenduak 17 larunbata, goizeko 22:30etan
Bilabonako Olaederra Kirodegian
Bilabona, 10 urte arte 1,2 €
10 urte gora: 4 €

30 urte

hitza

KIROLA ▶

NOELIA LATABURU

ESAIT, Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldea, euskal selektzio nazionalak eta Euskal Herriko federazio nazionalak izate aldera, sinadura bilketa egiten ari da Euskal Herrian. Iragan asteazken iluntzean, ekimen honen aldeko atxikimendua erakutsi duten Tolosaldeko hainbat eta hainbat kirolari eta kirol elkarteko ordezkariak elkartu ziren Tolosako udaletxean. Aurkezpen hau aitzaikitat hartuz, eskualdean orain artean jasotako sinaduren balantzea ere egin zuten ESAITeko ordezkariak.

«Jasotako emaitzak harro egoteko modukoak dira, eta oso garrantzitsuak dira guretzat», adierazi zuten ESAITekoek. Duela hilabete eta erdi hasi ziren sinadurak biltzen eta, egunarte, 750 kirolarirenak eta 35 kirol elkarerenak lortu dituzte. Dena den, kopuru hauek handituko direlakoan daude. «Tolosaldea eskualderik handiena izaki oso pozik gaude, eta gure xedea hemengo aurreikuspenak Euskal Herria osoan zabaltzea izango da».

Hilaren 23an, jaialdia Bilbon

Bide batez, hil honen 23an Bilbon izango den aldarrikapen ekitaldi jaiaren berri eman zuten ESAITeko ordezkariak. 19:00etatik aurrera Bilboko Kafe Antzokia Euskal Selektzioa sortzearen aldeko topagune bilakatuko da, *Zazpiak bat* lelopean. Lehenik eta behin, sinaduren aurkezpena egingo dute. Ondoren, Ene Badal musika taldeak dantzaldia eskainiko du. Ez da hau euskal selektzio baten ametsa dutenek eginko ekitaldi bakarra. Izan ere, iragan asteburuan Laskorain eta Gernika taldeen artean jokatuak norgehiagokaren atarian bi taldeetako kirolariek euren babesa erakutsi zioten ESAITen ekimenari. Jakitera eman dutenaren arabera, «oraindik eskualdean atxikimendua eman nahi duen kirolari edota elkarteren bat bada aukera dago sinadura luzatze-

ESAITen ekimenari «babes handia» eman diote kirolariek zein kirol elkarteek

750 kirolariren eta 35 kirol elkarteren sinadurak jaso dituzte Euskal Selektzioaren alde; «harro egoteko moduko emaitzak» lortu direla esan du ESAIT taldeak



Kirolari eta kirol elkarteko ordezkari askok egin zuten bat, asteazken iluntzean, ESAITen ekimenarekin, Euskal Selektzioaren alde. IÑIGO TERRADILLOS

ko, www.esait.org webgunean, hain zuzen ere.

Hamar urte badira ESAIT taldea Euskal Selektzioaren alde lanean hasi zenetik. Duela hiru urte ekimen batzuk aurrera atera nahi zituztela eta kanpainan bat jarri zuten abian, euskal herritarren iritzia jasotzeko. Inkesta baten bitartez Euskal Selektzioaren beharrez galdetu zuten: «emaitzak oso onak izan baziren ere», temati hartu zituzten. Denborak arrazoi eman diela adierazi zuten; izan ere, «federazioaren aldetik laguntza gutxi jaso dugu». Kanpainaren bigarren urratsa kirol elkarte eta kirolariengana hurbiltzea izan da, sinadura bilketa honen bitartez. Orain arteko jarraipena aintzat hartuz, lanean dihardu ESAITek, hamar urtetik honako aldarrikapenak gogoan: Euskal Selektzio baten beharra, alegia.

SINADURAK ▶ TOLOSALDEKO KIROL ELKARTEAK

Hauek dira federazio nazionalaren alde sinadura eman duten Tolosaldeko kirol elkarteak. Eman ez dutenek badute aukera oraindik, ESAITekin harremanetan jarritz:

ALEGIA

- ▶ Intxurre Kirol elkarte: futbol taldea, pilota taldea eta mendi taldea.
- ▶ Langaurre txirindulari elkarte.
- ▶ Alegiako Mendi Elkarte.
- ▶ Aldabako ehiza taldea.

AMASA-VILLABONA

- ▶ Uso Toki elkarte.
- ▶ Irrintzi txirindulari elkarte.

BIDEGOIAN

- ▶ Saiaz pilota elkarte.
- ▶ Muxarra ehiza elkarte.

ANOETA

- ▶ Kuku elkarte.
- ▶ Gazte Asanbladako areto futbol taldea.

ALTZO

- ▶ Elordi elkarte.

ELDUAIN

- ▶ Muga ehiza elkarte.

IBARRA

- ▶ Lauburu elkarte.
- ▶ IZT-Ibarrako Zikloturista Taldea.
- ▶ Haitzetan Raju mendi taldea.

IKAZTEGIETA

- ▶ Herrigintza elkarte.

ZIZURKIL

- ▶ Danena futbol taldea.

TOLOSA

- ▶ Tolosa C. F.: futbol taldea, Aralar Kirolak saskibalo taldea eta atletismo taldea.
- ▶ Hegoalde areto futbol taldea.
- ▶ Oriako txirindulari elkarte.
- ▶ Mendikute mendi bizikleta.
- ▶ Urrats txirindulari elkarte.
- ▶ Laskorain elkarte.
- ▶ Amaro elkarte.
- ▶ Beotibar zesta-punta elkarte.
- ▶ Aurrera pilota elkarte.
- ▶ Oargi mendi elkarte.
- ▶ Alpino Uzturre elkarte.
- ▶ Indarra Gim-Wushu elkarte.
- ▶ Judo Club Tolosa elkarte.

IRURA

- ▶ Ametsa pilota elkarte.
- ▶ Gazte Alaia elkarte.

hitza **txokoa** lagunen



▶ HITZAko harpidedunen arteko zozketa:

GORROTXATEGIren eskutik
Gabonetako
saski eder baten irabazlea.

PEIO IPINZA UGARTEMENDIA (ZIZURKIL)



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

KIROLA ▶

Kirol Asteko jardunaldietan lehenengo, asteartean

Edozen kiroletarako baliagarria izango den hitzaldia eskainiko dute mediku adituek

I. ETXEBESTE

Kirol Astea antolatuta dute Kirol eta Euskara eta Hezkuntza batzordeek datorren aste-terako, eta horren baitako lehendabiziko jardunaldia asteartean izango da. «Estreina edizioa edozein kiroletarako izango da baliagarri, eta hiru ataletan banatuko da». Hilaren 20an, 17:00-etatik 20:00etara izango da, Kultur Etxean.

Hasieran, Iñaki Arratibel medikuak 45 minutuko saioa eskainiko du *Entrenamenduen oinarri fisiologikoak* gai hartuta. Jarraian Julen Erazkin sendagilea ariko da beste 45 bat minutuz *Entrenamenduen planifikazioa* azaltzen, eta, azkenik, Xabier Leibar medikuak emango du hitzaldia: *Elikadura kirolean: oinarri fisiologikoak*. Hiru saioak bata bestearen segidan izango dira, eta Kirol Asteko hurrengo jardunaldiak ere ildo beretik izango direla iragarri dute: «Hiru atal horiez ariko dira jakitunak, baina modu orokorrean jardun beharrean, kirol zehatz bati helduko diote: arrauna, eski nordikoa, mendia...».

«Euskara biderkatzeko aukera handiak dituen sektoreari kiroletako teknoletoa eskaraz irakastea, eta, bide batez, haiek beren dizipuluei ere normaltasunez irakastea eta kiroletako sektore osoak hobeto lan egin dezan birziklatzeko ikastaroak euskaraz eskaintzea» dira, besteak beste, Kirol Asteko jardunaldien helburuak.

POLITIKA ▶

«Txotxongiloen Zentro Iraunkorrerako lehen pausoa eman dugu»

Espainiak 500.000 euroko diru laguntza emango dio; beste hainbeste jasoko du errendimendu handiko kirol zentroak



Oscar Renedo, Miguel Buen eta Ana Arretxe, herenegun, Tolosako PSE-EEren egoitzan. I. ETXEBESTE

IRATXE ETXEBESTE

Espainiako Kultura Ministerioak 500.000 euro jarriko ditu CIT-TEE Turismo Ekinbide Etxeak Euskal Herria plazan egin asmo duen Txotxongiloen Zentro Iraunkorreko egitasmorako. Horrez gain, erakunde horrek jasotzen duen urteko diru laguntza handitzeko asmoa du Espainiak, egun jasotzen dituen 18.000 eurotatik 36.000 eurotaraino. Horrela bada, TEEK diru kopuru bikoitza jasoko luke 2006an.

Halaxe adierazi zuten herenegun arratsaldean Tolosako Udaleko PSE-EEko zinegotzi Oscar Renedok eta alderdi horretako Gipuzkoako idazkari Miguel Buenek Espainiako Gobernuak datorren urterako

aurkeztu dituen aurrekontu orokorreari buruz hitz egiteko PSE-EEK Tolosan duen egoitzan antolatuta zuten prentsaurrekoan.

«Txotxongiloen Zentro Iraunkorra abian jartzeko lehen pausoa eman dugu; orain udal arduradunei, Eusko Jaur-laritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokie egitasmoa errealitate bilakatzea», esan zuten. Gipuzkoako alderdi sozialistak Madrilen emandako urratsek «fruituak eman» dituztela adierazi zuten Renedok, eta horrekin batera gogora ekarri nahi izan zuen alderdidek izandako Juan Mari Jauregi, «hura izan zelako Espainiako Kultura Ministerioarekin lehendabiziko harremanak lortu zituena».

TEEko zuzendari Ana Arretxek «pozarren» jaso zuen berria, eta eskerrak eman zizkien «egitasmo horretan laguntzeko asmoa duten guztiak, Miguel Arretxek eta Idoia Otegi orain 19 urte sortutako ideia gautzatzaren ari delako azkenean».

Beste hainbeste kirol arloan

Txotxongiloen Zentro Iraunkorrerako ez ezik, Usabalen egitekotan diren errendimendu handiko zentrorako ere emango du dirua Espainiako Gobernuak. Hain zuzen, beste 500.000 euro bideratuko ditu proiektu horretarako. «Espainiak bereak balira bezala hartu ditu bi proiektu horiek, eta guztira milioi bat euro ekarriko ditu Tolosara», zioen Buenek.

GIZARTEA ▶

Bonbereneak 6. urtemugako bazkaria du gaurkoan

Kalejira ere egingo dute herrian zehar txarangarekin; hilaren 23an, ekitaldi gehiago

I. ETXEBESTE

Bonbereneak bere 6. urteurrenko ekitaldiekin segitzen du, eta horien harira, herri bazkaria egingo du gaurkoan. Bertako kideek deialdia egin diete herritarrei eguerdian Bonbereneara ager daitezten. Bazkariak gain, herrian zehar kalejira egingo dutela adierazi dute gazteek, Bonbereneako txarangaren laguntzarekin, hain zuzen.

Datorren ostiralean, hilak 23, izango dira urteurrenko hurrengo ekitaldiak. *6 urte ta aurrera goaz!* ekimena izango da egun horretan. Hilaren 28an, bestalde, kontzertua izango da Basque Fire Department taldearen eskutik.

HEZKUNTZA ▶

Laskorainek Urteko Ohiko Batzarra du asteartean

I. ETXEBESTE

Hilaren 20an, asteartean, Laskorain ikastolak bere Urteko Ohiko Batzarra egingo du areto nagusian, 19:30ean. Ikastolako kideek elkarrekin aztertuko dituzte urteko gertakizunak eta datorren urterako asmoak zehaztu. Artekartiza Kontseiluko kide berrien izendapena ere egingo dute ekitaldi horretan.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zorion agurrak. HITZAn ezkondu berri den zure lagunaren argazkia jarri duzula? Edo urteak betetzen dituen seme-alabarena? Edo urrezko etzeiak bete dituzten gurasoena? Orain, aukera duzu horiek guztiak Interneten ikusteko. Sartu bere webgunean eta ikusi!

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Laramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.
Salgai (Tolosa). Pisua Belate ibilokian, Bista zoragarriak, sartzeko moduan.
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibilokian.
Salgai (Ibarra). Pisua San Inazio auzoan. Guztin berriua. 244.000 euro
Salgai (Tolosa). Pisua San Frantziskon. 126m2. Garajearekin.
Salgai (Tolosaldea). Garajeak leku ezberdinetan: Ibarra, Babuter Zaldibia kalean, Plaza zaharra...
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidean...
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

USABALGO LASKORAIN IKASTOLA
KOOPERATIBA ELKARTEA

Bazkide-Lagun, agur:
Urteko Ohiko Batzar Orokorrera dei egiten dizut, Laskorain Ikastolan, Usabalgo egoitzan burutuko dugunera. Batzar hau abenduaren 20ean, asteartea, izango da arratsaldeko 19:30ean hirugarren deialdian. (lehen deialdia 18:00etan eta bigarrena 18:30ean).
Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek dira:
1.-Aurreko urteko akataren berri eman,
3.-Balantzea eta Aurrekontua. Kuotak.
4.-Ikasturteko egitasmoa eta emaitzak.
5.-Partaide berriak Juntan,
6.-Akta onartzeko bi kide izendatzea.
7.-Galdera eta eskeak
Tolosan, 2005eko abenduaren 17an - Batzordeko Lehendakaria

VILLABONA ▶ POLITIKA



18/98 auziko inputatuei babesa

I. Garcia ▶ 18/98 auziko eskualdeko inputatuei (Joxe Mari Olarra, Nekane Txapartegi eta Mikel Egibar) babesa eskaini zieten atzo 350 lagunek, Villabonan eta Zizurkilan zehar egindako manifestazioan. *18/98+ eskubide zibil eta politikoen alde, epaiketarik ez lelopean, ixilean egin zuten oinez ibilbidea.* Ondoren, 18/98 + plataformakoek auziaren berri eman zuten hitzaldi batean. I. GARCIA

VILLABONA ▶ KULTURA



Eresargiren Gabon kontzertua

Erredakzio ▶ Urtero bezala, datorren asteartean, hilak 20, Gabonetako kontzertua eskainiko du Villabonako Eresargi abesbatzak —argazkian, emanaldi batean— herriko elizan. 19:30ean izango da, elizkizuna bukatu ondoren. «Gabon kanta herrikojak eta pianoarekin lagunduta eskainiko ditugu», azaldu du abesbatzak ohar batean. «Aukera ezinhobea gabonaldiari sarrera ona emateko». HITZA

VILLABONA ▶ DANTZA

Oinkariren 30 urteak ospatzeko dantza ikuskizuna Olaederran

Villabonako taldeak eta Leinua dantza talde lapurtarrak gaur eskainiko dute emanaldia, 22:30ean hasita

ERREDAKZIOA

Aurten 30 urte betetzen ditu Oinkari dantza taldeak, eta gaurkorako ekitaldi berezia antolatuko dute Udaleko Kultura Batzordearekin batera eta HITZAREN babesarekin. Villabonako taldeak eta Hiriburuko (Lapurdi) Leinua dantza taldeak eskainiko dute ikuskizuna. Hitzordua Olaederra kiroldegian izango da, 22:30ean; 10 urte artekoentzat 2 euro balio ditu sarrerak eta hortik gorakoentzat 4 euro.

Urteurrenari amaiera eman asmoz prestatu du Oinkari dantza taldeak emanaldia. Leinuak eta Oinkarik tartekatuta dantzatzeko dute: lehenengo lapurtarrek, gero billabonata-



Leinua dantza taldeak eskainiko duen saiaoren irudia. HITZA

rrek, lapurtarrek berriz ere, eta amaitzeko Villabonakoek. Lau emanaldi izango dira, beraz, guztira. Oinkari dantza taldeak aurtengo uztailan estreinatu

zuen bere azken ikuskizuna, *Oroituz* izenekoa. Gaurko emanaldian ikuskizun horren hainbat dantzez gain, taldearen hastapenetako dantzak be-

rreskuratuko dituzte. Hauek izango dira dantzatzeko dituztenak: lehenengo zatian, *Sarrera, Agurra, Zortzikoa, Jaurrieta* eta *Banako*; bigarren zatian, *Boga Boga, Kaxarranka, Fandangoa* eta *Arin-arina*.

Leinua dantza taldeak, berriz, iaz estreinatu zuen bere azken emanaldia, *Hirubibat* izenekoa. Emanaldi honetatik bi zati eskainiko dituzte: lehenengo zatian, *Gorriak eta beltzak*, eta bigarrenean, *Gernika*.

Bi dantza talde hauek eskainiko duten emanaldiaren ardatza bi koreografok izango dute. Oinkariren aldetik Edu Muruamendiarazek eta Leinuatik Roger Goyhenechek. Biak euskal dantzetan oinarriturik lan erabat ezberdinak taularatzeko dituzte, hau guztia zuzeneko musikak duen garrantzia ahaztu barik eta, nola ez, goi mailako argi jokoak lagundurik. Musikari dagokionez, Xanet Arorena da Oinkarin alor horren arduraduna, eta Elixabet Dufour da Leinuakoan musika zuzendaria. Aipatzekoa da guztira 84 dantzarik hartuko dutela parte (54 Oinkariok eta 30 Leinuakoak). Musikarietako dagokionez, 20 musikari izango dira taula gainean, 9 Villabonako taldearenak eta 11 Hiriburuko partetik.

IRURA ▶

Eguberrietako lehen kultur emanaldia bihar

Eguberrietako kultur ekinetkin hasiko dira bihar Iruan. Parrokian, 10:30eko mezan nagusian, Felipe Gorritiren *Meza abesbatza eta orkestrarako* eskainiko du Aita Donostia abesbatzak eta Seikote talde instrumentala. Ondoren, Eguberrietako kontzertua eskainiko dute Loatzeko eskolako ikasleek eta Aita Donostia abesbatzak.

ANOETA ▶

Karta jokoan sari banaketa Alkartasun

Alkartasuna Biltokian gaur, 18:30ean, karta jokoan sari banaketa egingo dute. Ondoren, elkarreko bi kidek, Bixentek eta Gloriak, merienda eskainiko diete bazkideei. Bukatzeko, dantzaldia, aholoiu jotzaile batek girotuta.

TOLOSA ▶

Zesta-punta jaialdia bihar Beotibarren

Beotibar pilotalekuan zesta-puntako Santa Luzia Txapelketaren finalak jokatzeko dira, 11:30ean hasita. Aurretik, 09:30ean, Gipuzkoako zesta-punta eskoletako pilotari gazteek kiniela modalitatean jokatzeko dute.

iragarki laburrak ▶

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz. 943 31 37 82.

Gidariak. Aldundian behar dira. Behin betiko kontratua. Informa

zaitetz. 943 31 37 82.

Urgentea. Haur zaintzaileak behar dira, haur eskoletako hezitzaileak. 943 31 37 82.

Ohar garrantzitsua. Ezintasun fisikoren bat badaukazu, lor ezazu postu finkoa. %5 erreserbatua. Doako

informazioa ondoko telefono zenbakian: 943 31 37 82.

Suhiltzaileak, udaltzaingoa. Udaletarako lanpostuak. Informazioa doan 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Lanpostuak udaletarako. 1.200 euro.

Lanaldia: astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Laborategia. Lanpostuak: teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritzak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

ALEGIA ▶

Binakako Pilota Txapelketa urtarrilean

Aurten gaztetxeak ekintza mordo antolatu ditu 18. urteurrenaren harira, urtarrila arte. Hori amaituta, Eskuz Binakako Txapelketa antolatu nahi dute. Ohiko tabernetan eman daiteke izena, eta jakin ere asteburuetan jokatu direla partida denak. 10 euro ordaindu behar dira bikote bakoitzeko. Aurrerago bilera batera deituko dute, xehetasunak eta dena delakoak argitzeko.

IKAZTEGIETA ▶ GIZARTEA

Onddo handi bezain berezia hartu dute

Naturak, beste behin, txunditu egin gaitu berak bakarrik eskain dezakeen bitxikeria bat emanez: itxura oso berezia duen onddoa. Hilaren 11n hartu zuen Sekundino Ormazabalak, Ikaztegieta bizi den alegiarrak, onddo ikaragarri hau. Asteazken zehar ikusgai egon da Alegiako Kafea tabernan, bere kilo eta 800 gramoeekin. Tabernan jarraitzen ez badu, orain non dagoen imajina dezakegu.



Ormazabal, onddoarekin. HITZA

ALEGIA ▶

Gaztetxean, gaur, kontzertu indartsua

18. urteurrena ospatzen ari direla eta, Alegiako Gaztetxeak asteburu honetan kontzertu rockeroa antolatu du. Izan ere, besteen artean, Erasotalea izanen da. Gaua 22:30ean hasiko da, Nuke taldearekin, ondoren Surfing Kaosetik jarraituko duenez. Bihar, igandea, antzerkia izango da, 19:00etan: *Kaputen kanta*, FTI kolektiboaren eskutik.

TOLOSA ▶ GABONAK

Ttenttek: Boliviako laguntza zabalduz

Gaur Gabonetako Azoka Nagusia da Tolosan, eta Ttenttek aisialdi taldeak bere postua jarriko du, jendeak ikus dezan eta inoiz baino arrazoiz gehiagorekin erosketak egin ditzan: San Frantzisko arkupeetan egongo dira, eta bertan, haien aisialdi taldeko umeei egindako gauzak salduko dituzte. Honela lortutako dirua Boliviako herri bati laguntza emateko erabiliko dute, azken hiru urteotan egin izan duten bezala. Horrez gain, haur bat besoetako hartuko dute. «Haurrek ilusio handiz egindako gauzak dira, eta ekintzak merezi du». Bestalde, 2006ko Inauterietan aterako duten konpartsan nahi duen guztiak izena emateko epea berehala izanen da: hurrengo astelehenetik eta asteartean, 19:00etatik 20:30era. Horretarako, San Frantziskon duten lokala joatea besterik ez da behar. Jakinarazi dute, gainera, aurtengo gaia *Ikarazko gaua* izanen dela.

BIDEGOIAN ▶

Aurrera-Saiatz klubeko finalaurre bat

Asteburu honetan Aurrera-Saiatz pilotako klubak hainbat final ditu, Gipuzkoako Elkarteen Arteko Txapelketan izugarriko maila erakutsiz. Gaur 17:00etan, jubenilen 1. mailako finalaurrea jokatu dute Intxaurrondon, eta Albizturko Xabier Telletxea eta Bidegoiango Koldo Galarraga pilotariak izango dira lehian. Kalitateko pilota jokoa ikustea espero da Intxaurrondoko pilotalekuan.

ALEGIA ▶ GABONAK



laz bezala, aurten ere, dantzari txikiak kalez kale ibiliko dira Errege Egun bezpera alaitzen. O. ESKITSABEL

Gabonen usaina, aste baten faltan, herrian barna igartzen hasia

Musika, jana, beroa eta Olentzero, Gabon hotzari aurre egiteko; ekintza ugaritan parte hartzeko aitzakiarik ez da

NEREA URBIZU

Gabonak gainean daude, urtero bezala, garaian baino aurreratuago sumatu izan arren: kaleko argiak, erakusleihoak, hotza... Alegian ere, Gabonei ongietorria egiteko, egitarau berezia prestatu dute, beti egiten duten moduan. Festa giroan izango da dena, eta egun hauetan ezin zen janaria falta. Izan ere, igandean hasiko da Eguberrietako programazioa, gaztain jatearekin. 16:30etik afalordura arte egongo da hauek dastatzeko aukera.

Hilaren 23an, askorentzat jaiegunen bezperan, Loatzoko Musika Eskolakoei Eguberrietako kontzertua eskainiko dute, Kultur Etxean. Musika alai eta goxoa, garaia eskatzen duen moduan. Hurrengo egunean ere, musika izango da protagonista: izan ere, 11:00etan, San Juan eskolako ikasleak abesten ariko dira, herriko kaleetan zehar. Bazkalostean, 15:30ean, alegia, Txintxarri abesbatza *Olentzero* kantari ibiliko da, Larraitz auzotik abiatuta. Eta, 18:30ean, askok urte osoan espero duten unea orduantxe bizitzeko aukera izango dute; Olentzero bera Alegiako udal-etxean egongo da.

Hilaren 25ean, 11:15ean, Meza nagusian, Txintxarri abesbatzak emanaldia eskainiko du.

Hurrengo hiru egun bikoitiei-

tan, 26an, 28an, eta 30ean, alegia, kirolaren garaia izango da, Eguberrietako Pilota Topaketak jokatu baitira pilotalekuan, 16:00etan. Aldi berean, 30ean, Txintxarri abesbatzak beste behin emanaldia egingo du elizan, 19:45ean.

Urteari hasiera emateko be-

rririo ere meza abestua egingo du abesbatzak, 11:15ean. Eta, ondoren, mandarinak eta intxaurrak botatzea izango da. Hurrengo ekitaldia Erregeen bisita izango da, jakina, urtarilaren 5ean, 19:00etan. Dantzari txikiak egun osoan kaleetan zehar ariko dira.

LAZKAO TXIKI

BAT-BATEKO SORGINA



Xabier Amurizak
aukeratutako Lazkao Txikiaren bertso eta irudi onenaren bilduma.

Xabier Amurizak abestuenak

abenduaren 16, 17 eta 18an **berria**rekin



Laguntzaileak:
Lazkao Udalak

Euskaldunok behar dugun **berria**

IBARRA ▶ KIROLA



Herriko kirolariak, Chelo Romeo alkatearekin, garaikurrak eskutan dutela. N. URBIZU

Herriko kirolarien kirolzaletasunari eta lanari saria

Kirolarien dedikazioa eta esfortzua eskertu asmoz, herriko kirolariak omendu zituen herenegun Udalak

NEREA URBIZU

Herenegun Ibarako hainbat kirolari elkartu ziren, kirol elkarteetako ordezkariak gain, Ibarako udaletxean. Bertan omendu zituen Udalak, beraien lana eta kirolari dedikatutako denbora eta esfortzua eskertu nahian. Kirol modalitate askotakoak ziren: futbolaria, arraunlariak, aizkolariren bat, mendizaleak, atletak...

Omenaldia hasteko, Chelo

Romeo alkateak egin zuen sarrera, eta berehala sariak banatzen hasi ziren.

Hain zuzen ere, kirolari ibar tar bakoitzak irudi bat eraman zuen etxera omenaldiaren oroigarri gisa, beiraren antzeko materialez egindako eskulturatxo eder bat. Ondoren, lunch-a hasi zen, eta mahaiak inguratuz jangarri gozoak das-tatu ahal izan zituzten ekitaldira bildutakoek.

Loren ikusi ahal izan ge-

nuen, sarien banaketan, ziurrenik zeuden kirolarien artean beteranoetakoak izanik.

Udalaren asmoetako bat gazteen artean kirolzaletasuna bultzatzea eta sustartzea zen, eta horrelako ekintzekin gazteak motibatzea. Ikusleen artean —70 inguru— makina bat haur ikusi ahal izan zen. Ezin kezatu inguruan ditugun kirolzaileen kopuruari eta kalitateari begira. Hurrengora itxaroin behar, Kirolaren Asteari, alegia.

IBARRA ▶

Parabellum taldearen kontzertua

Gaurkoan Ibarako Gazte-txean, 23:00etan, Parabellum talde mitikoak kontzertu bikaina eskaintzeko asmoa du. «Kontzertuaren aurretik giroa egotea espero da, baita ondoren ere. Zer esanik ez, kontzertuak irauten duen bitartean».

LEABURU ▶

Osasun gunearen inaugurazioa



Zentroaren ataria i. t.

Orain arte Leaburuko herriko taberna izan den lekuan aldaketa batzuk egin dira. Horren ondorio, Kultur eta Osasun Gunea izan zen, eta gaur egun eraikita ikus daiteke. Bertan, medikuntza kontsulta eta gizarte laguntzaileak astero egonen dira, KZguneaz gain. Asmoa da,urrerago, epe laburrean, Udal Liburutegia irekitzea. Leaburu-Txaramako Udal ordezkariak honelako gunea herritar baten omenaldirako proposa zela ere pentsatu zuten, eta aho batez omentzea erabaki zuten. Kasu honetan, Maria Luisa Agirre sendagilea, berak bizitza osoan hainbat haur lagundu eta sendatzeagatik. Bihar izango da inaugurazioa eta omenaldia, 13:00etan; aurretik, 12:45ean, herriko dantzariek saioa eskainiko dute.

TOLOSA ▶

Tolosako Orfeoiaren kontzertua gaur Santa Klaran

Donostiako Belenista elkarteak antolatzen du Eguberrietako kontzertuaren emanaldia

N. LATABURU

Tolosako Orfeoiak kontzertu berezia eskainiko du gaur, 20:30etik aurrera, Santa Klara elizan. Donostiako Belenista elkarteak urtero antolatzen duen Eguberrietako kontzertuaren harira eskainiko du Orfeoiak. Ignacio Ruiz de Alegria musika maisuaren gidaritzapean ariko dira musikariak, eta Iruñeko Orkestra Concertoarekin batera. Soprano eta kontraltu lane-tan, berriz, Amaia Arberas eta Marife Nogales izango dira. Abesbatza batek ere lagunduko ditu bi abeslari hauen aho-tsak.

Kontzertuak saio ezberdinak izango ditu; lehendabizikoan, Vivaldiren *Gloria* lana eskainiko dute eta egitaraua betetzeko Gabon kantuez osatutako emanaldia eskainiko dute —*The first nowel, God rest you Merry Genthelmen, Unto us in born, Hark te Herald angels sing, Stille Nacht, Adeste fideles, O! Bethlehem, Oh holly night*—. Kontzertuak 60 minutu inguruko iraupena izango du.

Tolosako Orfeoiak 1998. urtean ikusi zuen argia, Ignacio Ruiz de Alegriaren gidaritzapean. Bere helburua musika sinfonikoari zuzendutako lana burutzea izan zen hasieratik. Bada, bere ibilbidean zehar ekitaldi asko antolatu ditu, eta bere sorreratik hona hamaika lan aurkeztu ditu Orfeoiak. 1999ean, esaterako, *Baserría* izeneko zarzuela aurkeztu zuen Tolosako Leidorren. Urte bereko abenduan Donostiako Orkestra Sinfonikoarekin batera kontzertua eskaini zuen. 2000. urtean, berriz, finkatzea lortu zuten, eta kontzertu asko eskaini zituzten, Kantabrian (Espainia) eta Iruñean, beti ere tolosarrak direlarik haien ikusle-gogokoena. Gaur izango da, beraz, beraien musikaz gozatzeko aukera.

iragarki laburrak ▶

LANA

Emakumea. Emakumea behar da 08:00etatik 11:00etara. Arratsalde deitu: 667 45 51 76.

SALGAI

Autoa. Chrysler Voyager diesela salgai, extra askorekin. Oso egoera onean. 626 07 85 31.

OPARITZEKO

Txakurkumeak. Arratoi-bxakurrak oparitzen ditut, hilabete eta erdikoak. 645 70 68 21. Inma.

GALDUTAKOAK

Betaurrekoak. Graduatuak betaurrekoak galdu ditugu hilaren 15ean. 943 67 28 53.



Tao-Ota Tolosak 2006 urterako bertakoentzako txartelak berrizta ditzakezuela jakinarazten dizue.

Ordainketa helbideratuta daukatenei zuzenean kobratuko zaizkie 30 euro eta etxera bidaliko zaie txartela. Ez dute zertan Tao-Ota Tolosaren bulegoetara jo.

Ordainketa helbideraturik ez daukatenek, autoaren matrikula eta izen-abizenak ezarritik, honako banketxeren bateko kontuan egin beharko dute ordainketa:

Kutxa: 2101 0152 64 0011437589

Caja Laboral: 3035 0028 14 0280091240

Ordainketa egin ondoren Gorosabel kaleko 48an dauden bulegoetara jo eta ordain-agiria aurkeztu beharko dute txartela jaso ahal izateko.

Txartelak autoaren aurreko aldeko leihoaren ondoan, toki ikusgarriren batean jarri beharko dira urtarilaren 15a baino lehenago.

Tolosako higikortasun plana
Tao-Ota Tolosa

Beti alai
jateko

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementei kalea, 16 • 20400 TOLOSA

IRURA ▶ EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

Biharko bertso festa erraldoiean, hantxe izanen da Mendiluze

BECen eginen dute Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko final handia, zortzi bertsolariren buruz burukoan

JAIONE ASTIBIA

Iritsi da bertso festa erraldorako tenorea. Bihar izango da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, Barakaldoko BECen. Zortzi bertsolari doaz txapelaren bila, eta tartean da ere Iruran bizi den Aitor Mendiluze andoindarra. Harkein batera lehian ariko direnak honako hauek dira: Amets Arzallus, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Jon Maia. Egund osoko jaialdi honetarako 13.000 lagun inguruk hartua dute txartela jada. Asko eta asko autobusetan joan dira bertara gainera, gure eskualdeetatik esate baterako, Tolosatik bi, Alegiatik bat eta Leitzaldetik beste bat. Ikaragarriko eguna izanen dela iragarri daiteke.

Jaialdia BECeko Bizkaia Arena aretoan eginen dute eta bi zati izanen ditu, goiz-arratsaldeko saioetan banatuta; goizekoa 11:00etan hasiko da, arratsaldekoa 16:30ean. Zortzi bertsolariek sekulako lana egin beharko dute. Bakoitzak 25na bertso osatu beharko dituzte, Saroi Jauregi eta Bernardo Mandaluniz gai-jartzaileen gidaritzapean: binaka, gaia emanda, zortziko haundian, hiruna bertso; binaka, gaia emanda, zortziko ttikian, launa bertso; bakarka, lehen puntua emanda, zortziko ttikian bina bertso; binaka, gaia emanda, hamarrekotikian, hiruna bertso; eta goizeko saioari kartzelako bakarkako gaiarekin bukatuko dute, nahi duten doinu



Aitor Mendiluze hantxe izanen da BECen kantari. BERTSOZALE ELKARTEA

eta neurrian, hiruna bertso kantatuz. Arratsaldeko saioan, berriz: binaka, gaia emanda, *Aizak hi mutil mañontzi* doinua erabiliz, hiruna bertso; binaka, gaia emanda, zortziko ttikian puntuka, zortzi bertso osatu arte; eta bakarka, gaia emanda, hiruna bertso, nahi den doinu eta neurrian. Horra!

Eta lan hauek egin eta ordu arteko puntuaketak batuta, puntu gehien eskuratu dituzten bi lehen bertsolariek aparteko saioa eginen dute: biek elkarrekin, alde batetik gaia emanda, zortziko ttikian, hiruna bertso osatzea eta bestetik, gaia emanda ere, hamarrekotian handian beste hiruna bertso kantatzea; eta kartzelakoan, banaka egin beharko dutena, noski, beste bi lan: gaitzat hitz bat izanez, bederatziko ttikian

bertso bat eta gaia emanda hiru bertso, nahi den doinu eta neurrian. Hortxe bukatuko dute lana bertsolariek. Txapelak zeinen burura joan behar duen ere hortxe erabakiko da.

Zortzi lagun ariko dira bertsoetan, zortziak hautagai dira. Horien artean dago Mendiluze eta HITZA irurar honekin mintzatu da, finaleko atari honetan azken iduritu batzuk jasotzeko asmoz.

Mendiluzerekin

Egin beharreko horretan gutzian, ez du lan bat bestea baino gustokoagoa, «denetik egitea» du gogoko, «aukeratzekotan, zortziko txikia, akaso, baina», zioen berak. Horrela, zailena egiten zaionaz galdetuta, berak zioenez, edozein lan suer-

DI-DA BATEAN ▶

Amets Arzallus. «Makina bab».

Andoni Egaña. «Dena da, kualitate guztiak ditu».

Igor Elortza. «Fina batez ere, dotorea».

Jon Maia. «Sentiberatasuna, edo sentsazioen transmitzaila».

Maialen Lujanbio. «Pertsonala. Besteetatik, bertsokera berrikoa dena».

Sustrai Colina. «Oso zuzena zentzu guztietan, teknikoki eta esaten duen horretan ere».

Unai Iturriaga. «Zertzeladetakoa bertsolaria da».

Txapelduna zein? «Ez dut batere garbi. Inoizko finalik berdina izanen dela uste dut, ez dago bertsolari bat nabarmendu denik, bakoitza gure pertsonalitatea definituz goaz: txapeldunak eta txapeldun ordeak plus bat dute, mailaz ere; finalerdietan Iturriaga asko gustatu zait, baina gainerakoei ere ezer kendu gabe. Nik uste, egun horretan lana nola egiten dugun, edozein».

tatu daiteke zailtasuna duena: «Puntua emanda, erantzutzea, banakakoak... nik uste ahalegin berdintsua egin behar dela guztietan. Hor, gakoa, neurria baino, gaia izan daiteke: zer gai egokitzan den, zer doinu aukeratu, zein bikote egokitu zaizun... Osozunean aztertu behar da. Ez da bat edo bestea, guztia da», azaldu zuten.

«Oraingo», oso lasai dagoe la baieztatu zigun, bestalde. Eta joan den egunean BECera egindako ikustaldian, «oso inpresio ona», jaso zuela adierazi zuten: «Areto oso polita eta egokia da. Belodromoa baino txikiagoa, bilduagoa da. Beroagoa», zioen. Jendetzak ez dio beldurrik eragiten.

Eta *trantz*e batean jarri ere, jarri genuen, berarekin batera izanen diren gainerako finalistak definitzeko eskatu genioan.

Bejondeiela guztiei.

ARESO ▶

Olazabalek DVko pilotako finala jokatuko du biharkoan

Iñaki Jauregi lagun duela, Errea eta Oteiza izanen dituzte aurkari Zarautzen

J. ASTIBIA

Bihar, 11:00etan, Zarauzko Aritzabalde pilotalekuan jokatuko dute Mikel Olazabal aresoarrak eta Iñaki Jauregi soraluzearrak DVko Pilota Sariketako finala, Errea-Oteiza bikotearen aurka.

Txapelketako partidu guztiak irabazita, indartsu, Olazabalek, iaz etorkizunekoan mailan aritu zenez, badu eskarmentua, eta oraingoan seniorretako txapela dute jokoan.

LEITZA ▶

Iruberrin ariko dira helduak, gaztetxoak etxean gaur

J. ASTIBIA

Bihar Irunberrira joan beharrik dira Aurrerako futbolariak. 15:30ean dute partidua, Iluberri taldearekin. Bi taldeak zuzeneko lehiakideak dira, biak sailkapenean 3. baitoaz. Irunberriko talde hau, gainera, aurtengoren mailatik jatsitakoa da, eta igorarako hautagai bat da. Partidu zaila baina lortu beharrekoa, beraz, leitzarrentzat.

Eta Aurrerako talde gazteak, berriz, gaur du partidua Arkixkilen. Altsasuren aurka, 15:30ean.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

AZOKA

Tolosa. Gabonetako Azoka Berezia, goiz osoan.

DANTZA

Villabona. Oinkari dantza taldea eta Leinua. 22:30ean, Olaederran.

DEIALDIK

Ibarra. Datorren asteartean eta ostegunean, 20:00etan, Subegin, Eguberrietan kantatzen ateratzeko entseguak egingo dituzte. Eguberri Egunean kalez kale aterako dira, euskal preso, iheslari eta errefuxiatuen alde.

Tolosa. 2006. urterako mendiko federatu bartelak tramitatzeko aukera, Alpino Uzturre elkartearen (Gudari, 5). Astelehenean eta asteazkenean, 19:30etik 21:00etara.

MUSIKA

Alegia. Nuke, Surfing Kaos, Eraso. 22:30ean, Gaztetxean. 18. urteurrenean.

Ibarra. Parabellum. 23:00etan, Gaztetxean.

Ibarra. Loatzo Musika Eskola. Etzi, 19:00etan.

Irura. Loatzo Musika Eskola. Bihar, 11:00etan.

Tolosa. Tolosako Orfeoa. 20:30, Santa Klara.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)

10:30-13:00. *Hitzak hegan:* Amaia Agirre elkarriketa, Amaia Sagastik Palestinan egindako bidaia, agenda, Gabonetako saski baten zozketa...

18:00-20:00. *Txapelketa Nagusiko finala:* saio berezia. Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren bitartez, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiok orain aste gutxi Lasarten eskaini zuten hitzaldia. Horrekin batera, Aitor Mendiluzek eta Andoni Egañak Txolarren egindako hitzak berreskuratuko dituzte.

Goiko irratia (107 FM)

13:00. *Kornerra.* Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Bidali zure marrazkiak!

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Haurrek bidalitako marrazkiak argitaratuko ditu HITZAK; Tolosako Alde Zaharreko merkatarien laguntzaz, sariak banatuko ditu

ERREDAKZIOA

Ekimen berri batekin dator **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**, oraingo honetan etxeko txikienentzat. Gabonetako oporrak gainean direla eta, bi eskualdeetako haurrei egunotan marrazkiak egiteko gonbita luzatzen die eta, batik bat, marrazki horiek euskarazko egunkariaren egoitzetara bidaltzeko edo eramateko. Marrazki horiek argitaratu egingo dira. Tolosako Alde Zaharreko Merkatariei Elkartearen laguntzarekin, gainera, hainbat sari banatuko dira parte-hartzaile guztien artean.

3 eta 12 urte bitarteko haurrei dago zuzenduta deialdia, eta hiru multzotan banatuko dira parte-hartzaileak: 3 eta 6 urte bitartekoak, 6 eta 9 urte artekoak, eta 9 eta 12 urte bitartekoak. *Nola ikusten duzu zure herria?* da proposatutako gaia. Hori ardatz hartuta, Din A4 neurrian marrazkia, egilearen izen-abizenak, adina, herria eta azalpen labur bat jasotzen duen testua landu behar ditu haurrak. Marrazkiak HITZAREN egoitzetara (Araba etorbidea, 5-atzea, Tolosa. Herriko plaza, 1, Leitzaldea) bidaltzeko edo eramateko epea zabalik da dagoeneko; urtarilaren 6a izango da lanak jasotzeko azken eguna.



Haurrak marrazten, Bidegoiango Kultur Astean. I. GARCIA

Marrazkiak jaso ahala argitaratuko ditu HITZAK. Parte-hartzaile guztien artean zozketa egingo da, eta Tolosako Alde Zaharra merkatariei elkartearen

laguntzarekin, hainbat sari banatuko dira. Hain zuzen ere, ondorengo merkatariak hartu dute parte ekimenean: Bazar Amiano, Dakaro, Maite goxokiak, Irura okindegia, Altuna harategia, Sukia harategia, La Casa Azul, Ogi Ona, Noor (Korreo kalekoak); Eceiza gozotegia, Shanti Kirolak, Bermudez frutategia, Muñagorri harategia, Kinu, Alejandro Goya harategia (Rondilla); Xirimiri txokolategia, Interfilm, Lizarralde harategia (Errementari); Bilintz liburudenda, Zumbeltz diskak (Arostegieta); Gorrotxategi gozotegia (Plaza Zaharra); Aranburu liburutegia (Solana); Ogi-Berri (Eskolapioen lorategiak); Ogi-Berri, Natural Body, Kismetz, Gorrotxategi dietetika (kale Nagusia); Pirulo's, Edel liburudenda (Leitza kalea); eta El Bacalao goxokiak (Korreo).

Sari-banaketa egiteko ekitaldia antolatuko dute eskualdeko euskarazko egunkariak eta merkatariak, elkarlanean; festa giroan, sorpresarik ez da falta izango egun horretan. Urtarillean, gainera, merkatariak marrazkien erakusketari jarriko dute ikusgai Tolosako Alde Zaharrean. Animatu eta bidali zure marrazkia!

AGURRAK ▶



ZILLARREZKO EZTEIAK
Jose Aramendi eta Kristina Artoia (Tolosa).
Zorionak familia guztiairentzat.



URTE ASKOAN
Zorionak, Ane.
Sekretua ondo gorde!



URTE ASKOAN
Amaieur (Belauntza).
14an egin zituen 9 urte.
Zorionak etxekoan partetik.



URTE ASKOAN, TTIKI
Amaieur Arrospe Uzkudun (Leaburu).
Gaur bi urte. Egun eder bat ospatuko dugu maite zaitugunok.



URTE ASKOAN
Mikel Irazusta. Zorionak familiaren partetik zure bosgarren urtebetetzean.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri: HITZAREN egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSALDEA Udaletxeko bulegoa - LEITZALDEA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!